

EDUKIAK:**1. multzoa: Pertsonaren duintasuna****2. multzoa: Elkar ulertzea, errespetua eta berdintasuna pertsona arteko harremanak****3. multzoa: Gogoeta etikoa****4. multzoa: Justizia eta politika****KALIFIKAZIO ETA BERRESKURATZEKO PROZEDURAK.
GAINDITUGABEENTZAKO TRATAMENDUA.****KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

Aurreko puntuan esandakoaren arabera, kalifikazioaren osaketa honako irizpideen arabera egingo da:

1. Jarrerari dagozkionak.

- ✚ Klaseko jardueretan parte-hartzea, hala nola, debateetan, elkarrizketetan...
- ✚ Egindako lana eta azaldutako interesa eta arreta. Honekin batera ariketak eta gainontzeko lanak garaiz egin eta entregatzea.
- ✚ Jarrera gizatiarra, ikaskideekin nola irakaslearekin, klasearen funtzionamendu normala sistematikoki oztopatu gabe. Ikasgai honetan jarrerak funtsezko garrantzia hartzen du, azken finean elkarbizitza baitu helburu nagusia. Horregatik, kalifikazioak jartzerakoan, jarrerarekin lotuak dauden aspektuak hartuko ditugu bereziki kontuan.

2. Idatzizko ariketak

Esana dago jarrerak funtsezko garrantzia duela kalifikazioa osatzeko garaian. Ez dugu azterketarik egiteko asmorik, bai ordea zenbait idatzizko ariketak lehen aipaturiko oinarritzko gaitasunak lantzeko.

Idatzizko ariketetan positibotzat joko dira honako aspektu hauek:

- ✚ Adierazpenaren egokitasun espresibo eta formala.
- ✚ Zehaztasuna eta sintesirako gaitasuna.
- ✚ Arrazonatu eta argumentatzeko gaitasunak.
- ✚ Txukuntasuna eta adierazpenaren ulergarritasuna.

Ebaluaketa bakoitzeko nota kalkulatzeko ebaluaketa horretan egindako idatzizko ariketek %50 eta jarrera gehi portaera %50 balio izanen dute.

Azpimarratu nahi dugu portaera gizatiarra izatea, guretzat ezinbestekoa dela. Portaera onargarria azaltzen ez duen ikasleari ez zaio kontuan hartuko beste ataletan egindakoa kalifikazioa finkatzerakoan. Kurtso osoa gainditzeko hiru ebaluaketak gainditu beharko dira.

BERRESKURAPEN PROZEDURAK

Eduki minimoak bete ez dituen ikasleak bi asteko epean berreskurapena egiteko aukera izango du. Kontuan hartu behar dugu eduki hauek ez direla kontzeptualak soilik, prozedurazkoak eta jarrerazkoak ere aintzat hartuko direla. Honek esan nahi du bi atal hauetan ere ezinbestekoa dela gutxieneko maila lortzea.